

txintxarri



Erketz EDT: etenik gabeko soka

Erromeria erraldoia egin du dantza taldeak, eta mende Erdiko ibilbidea jasotzen duen liburua aurkeztu: 'Sokak ez du etenik' / 6-7

TXINTXARRI

Andatzan pedal kolpeka

la 500 txirrindularik parte hartu dute igandeko BTT txirrindularitza proban / 10-11

Merkataritza gunen hazkundea aztertu du Lasarte-Oriako Talde Aktibistak / 02

Azkorteko erromeria gertu dago: Santa Krutz ospatuko dute lasarteoriarrek, maiatzaren 6an / 04

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Gure betaurreko guztiak 2018 bildumakoak dira

2 mō betaurreko:
graduatuak
erreflexuen aurkako leiarrekin
+
eguzkitako graduatuak
99€

Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

Konsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiópticasgipuzkoa.com



Eli Azpillaga Belartza 2 Gelditu plataformako kidea eta Unai Fernandez de Betoño EHuko irakaslea. TXINTXARRI

Merkataritza guneak hedatzeko presa

Azken boladan saltoki handiak ezartzeko proiektu ugari jarri dituzte martxan. Lasarte-Oriako Talde Aktibistak gonbidatuta, adituek azaldu dute zergatia: lege hutsunea nahi dute aprobetxatu, lurraldeko plan sektorial berria onartu aurretik

Adrian Garcia

Bada kezkatzeko moduko gaia. Lasarte-Oria inguruan 2000. urtean ezarri zuten Urbil merkataritza gunea, baina azken aldian gisa horretako beste proiektu asko jarri dituzte martxan. Michelin 2, Belartza 2, Leroy Merlin... Mercadona eta McDonald's ere orain gutxi ireki dituzte. Krisi ekonomikoa oraindik arrastaka eduki arren, presaz ari dira saltoki handi horiek ezartzen. Lasarte-Oriako Talde Aktibistak gaia plazaratu du, eta hitzaldia antolatu du aste honetan Manuel Lekuona kultur etxean. Unai Fernandez de Betoño arkitektoak eta EHuko irakasleak, eta Eli Azpillaga Belartza 2 Gelditu plataformako kideak multinazional horien hedapena ulertzeko giltzarriak eman dituzte.

Lege kontua da dena. Eusko Jaurlaritzak onartua du txosten batzuetan saltoki handiak kaltegarriak direla inguruko herrirentzako ekonomiarentzat. Horregatik, Lurraldeko Sektore

Planak horiek eraikitzeke muga batzuk hartzen zituen kontutan. Baina Fernandez de Betoño irakasleak kontatu moduan, multinazionalak auzitara jo zuten plan horren aurka, eta irabazi egin zuten. Arrazoia ondokoa da: Europako Batasunaren arabera, ezin zaizkio jarduera ekonomikoa bati mugak jarri arrazoi soilik ekonomikoengatik. Alegia, denda txikiak babesteko argudioa erabilita ezin da merkataritza guneen hazkundera baldintzatu.

Lurraldeko Sektore Plana

Horrenbestez, plan berria aurkeztu bitartean, "lege hutsune antzeko bat" dago. "Hori ari dira aprobetxatzen multinazionalak", esan du EHuko irakasleak.

Presa hori nabaritu du Azpillagak, Añorgako herritarrek. "Ahalik eta azkarren nahi dute proiektua onartu, jendeari informazioa ezkutatuta". Azkar eraikitzeke behar horrek bultzatuta, ordea, hamaika irregulartasun egin dituzte.

Proiektua bera "basakeria" da, Azpillagaren hitzetan. "Natura gune batean nahi dute eraiki Anoetako 28 estadioren tamainako gunea".

Dena "tranpa batean" oinarrituta dago, dio Belartza 2 Gelditu plataformako kideak. Bere garaian industria poligonoa izendatu zuten eremu hori, "inolako ingurumen" azterketarik egin gabe". Orain ingurune komertzializat jo nahi dute, multinazionalen diruaren truke. "Udalek hirigintza nahieran eskaintzen dute. Hori erabiltzen dute diru sarrerak bermatzeko. Nondik aterako du bestela Donostiako Udalak metroa egiteko dirua?".

Teresategiko eremuarekin antzeko zerbait gertatuko da. "Basoa zapalduko dute Leroy Merlin egiteko". Horrek udal askoren "hipokrisia" erakusten duelakoan dago Azpillaga. "Jendaurrean ingurumena babesteko prest daude. Baina benetako orduan jarrera bestelakoa da".



GEURE KABUZ

TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Betiko Udako Txokoak, aurrera

Aste oso gogorak izan dira hauek Ttakun Kultur Elkartea osatzen dugunontzat. Oraindik ez dute ofiziala egin, baina litekeena da udalak enpresa bati adjudikatzea udaleku irekiak. Horrenbestez, lehen aldiz 1992. urtetik Ttakun ez da horietaz arduratuko. Elkarreak orain dela 25 urte sortu zituen txokoak, haurrei euskarazko espazioak emateko. Urte horietan guztietan proiektua eraiki dugu, balio pedagogiko eta hezitzaileak indartzeko. Aurten, ordea, aldaketa nabarmena egin du udalak; Udako Txokoak antolatzeko diru laguntza urteroko hitzarmenetik atera du, eta lehiaketa publikora atera du, lege arrazoiak argudiatuta.

Ttakunek ez du zalantza jartzen horren legezkotasuna. Bai, ordea, eraman den modua. Emaitza ikusi besterik ez dago; eskaintza ekonomikoa lehenetsi da kalitatearen gainetik, eta horregatik irabazi du enpresa pribatu batek.

Mende laurdenez mimoz tratatu ditugu txokoak, kultur elkartearen zutabeetako bat baitira. Horregatik egin zaigu oso mingarria udalak eman dion trataera. Finean, enkantean jarri du gure egitasmoa, eta eskaintzaile onenak bereganatu du.

Lehiaketaren emaitzak ez dira publikoak egin, baina udalak ohar bidez esan du Ttakunek baino puntu gehiago atera dituela beste enpresa batek. Zerbaki honetako 13. orrian dago irakurgai agiri osoa. Bertan ez da azaltzen, ordea, lehiaketa desorekatua izan dela, alor ekonomikoa pisu handiagoa izan duelako.

Izan ere, alderdi teknikoan Ttakunen proposamena da onena. Alde handiagatik. Baina kalitatea ezinbestean lotuta dago aurrekontuarekin. Lehiaketara aurkeztu den enpresak eskaintza merkeagoa aurkeztu du, eta Ttakunek ezin izan du prezio horrekin lehiatu. Ezta nahi ere; urteetan zaindu ditugu Udako Txokoak, eta denbora horretan lortutako kalitatea bermatu nahi izan dugu.

Kosta egiten zaigu ulertzea udalaren helburua mota horretako lehiaketa bat aurkeztean. Zergatik horrenbeste pisu alor ekonomikoa? Lehiaketarako oinarriak irakurtzean ere zalantza asko sortzen zaizkigu. Izan ere, udalak erabaki du eskarmentua ez izatea proiektua aurkezteko baldintzetako bat. Alegia, edozein enpresa aurkez zitekeen txokoak kudeatzera. Zer bilatzen duen udalak, lehiaketa sustatzea? Nori egin nahi zion mesede? Bistan da nor kaltetu duen.

Gerora udalak hartutako jarrera ere ulergaitza zaigu. Agitaratutako oharrean dio Ttakunek "euro bat ere" ez duela jarri zerbitzua kudeatu duen denboran. Ongi baino hobeto daki hori ez dela horrela. Eskaintako diruz lagundutako plazak mugatuak dira, eta urteetan dozenaka haur gehiago hartu izan ditu elkarreak diru laguntzarik jaso gabe, inor kanpoan ez uztearren. Txokoek izan duten bilakaera ezin da ulertu udalaren laguntzarik gabe, baina txokoetan parte hartzeko ordaintzen diren kuotak eta Ttakunen ekarpen ekonomikoa propioa ere ezinbestekoak izan dira proiektua aurrera eramateko.

Edonola ere, Ttakunen ez gara geldirik egongo. Proiektuarekin jarraitzeko asmo sendoa daukagu, eta ez dugu inolako aukerarik baztertuko, nahiz eta diru laguntzarik ez jaso; Ttakunen eta familien baliabide hutsekin aurre egin beharko diogu. Aurtengo uda, beraz, berezia izango da. Baina ziur gaude, beti bezala, Lasarte-Oriako herritarren eta herriko elkarten laguntza izango dugula.



Lore eta landare eskaintza zabala izan da aurtengo Lore eta Landare Azokan. TXINTXARRI

Udaberriko kolore eta usainak Okendo plazan

Udaberri giroa arnastu dute herritarrek asteburuan, Okendon. Eta ez bakarrik eguraldi eguzkitsuagatik: hainbat saltzailek ekarritako lore eta landare koloretsuek ere lagundu dute eginkizun horretan. Jende andana ibili da plazan, goiz osoan zehar

Txintxarri

Arrosak, eguzkiloreak, bitxiloreak, ukendu naturalak, etxean egindako ezti...eta eguraldi eguzkitsua. Udaberria iritsi zen Okendora pasa den larunbatean. Lore eta Landareen Azokaren VI. edizioa antolatu dute Behemendi elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak. Lasarteoriatarrek ez dira etxean geratu, eta plazatik paseotxoia eginez, aurtengo azokan parte hartu duten hamabost postuetako

produktuak ikusi eta erosi dituzte. Horien artean egon da herriko bat: Lasarte-Oriako Hazi Ekologikoak.

Gaztetxoak jolasean

Bien bitartean, gaztetxoek primeran pasa dute, jolasten: tokan, arrantzan, uztaiak jaurtitzen... Landareekin hartu emanak ere izan dituzte, antolatzaileek espreski haurrentzat prestatutako tailerlean. Ikasi dute hainbat landare nola landatzen diren,

lore mota desberdinek nola duten izena, eta beste hainbat gauza ere bai.

Lore eta Landareen Azokaren aurtengo edizioan parte hartu duten postuak hauek dira: Viveros El Montañes, Zunoyar lorategia, Islaya, Ortuberri, Arizkurengo Tienduka, Urtinea, Lore Pentsatua, Lasarte-Oriako Hazi Ekologikoak, Oiaralda SL, Sojo Natura, Sara Letamendia, Aranburu Mintegia, Loraldi, Amis Flower Truck eta Tissus Artisautza.

Maiatzaren 25era arte aurkeztu ahalko dira literatur lanak

2018ko literatur lehiaketako lanak aurkezteko epea zabaldu du udalak. Maiatzaren 25a izango da horretarako azken eguna.

Aurreko urteen antzera, euskarazko eta gaztelaniazko lanak onartuko dituzte, eta hiru modalitate landuko dira; poesia, ipuina eta mikrokontakizuna. Aurkezten diren lanak jatorrizkoak izan beharko dute.

Hondakinen kopurua nola gutxitu lantzen ari dira herriko ikasleak

Eskolako *Agenda 21* programaren barruan hondakin gutxiago nola sortu lantzen ari dira Landaberri eta Sasoetako Lehen Hezkuntzako ikasleak. Horrekin batera, etxean, herrian edota ikastetxeetan sortutako hondakinak nola kudeatu ere ikasten ari dira gaztetxoak.

Lehen hiruhilekoan hondakinen arazoaz jabetu dira ikasleak. Bigarren hiruhilekoan, herria

aztertzekeo tartea izan dute ikasleek. Behaketa lana egin ostean, hauteman dituzten arazoak zerrendatu dituzte.

Hirugarren hiruhilekoan, berriz, gaiarekin hartutako konpromisoak azalduko dituzte, ondoren udalari proposamenak luatzeko. Maiatzaren 30ean bilduko dira udaleko ordezkariekin, eta orduan ezagutuko dira aurtengo lanaren emaitzak. Horrez gain, ikasleek udalari egindako proposamenen erantzunak ere hitzordu horretan ezagutuko dituzte.



NEURE KABUZ

GORKA LASA

Muturretik muturrera

Munduaren mutur batetik bestera bidaiatuko bagenu, hamaika gauza bitxi eta desberdin ikusiko genituzke, baina ez da hain bidaia luzerik egin behar horrelakorik ikusteko. Gure inguru honetan ere, urrutira joan beharrik gabe, badira gauza eta gertaera arraro, deigarri eta muturrekoak.

Orain hamabost egun, eurria non sartu ez genekiela genbiltzan, gau ta egun euritan, dena ur! Aurreko astean, berriz, gu geu ginen non sartu ez genekienak, beroak jota, eguzki galdatan erre beharrean, muturretik muturrera pasa ginen egun gutxiren buruan.

Orain urtebete inguru, Altsasuko Koxka tabernaren kanpoaldean ukabilkadak izan ziren muturretik muturrera gazte eta guardi zibil batzuen artean. Gertaera hau, terrorismotzat jo, eta muturreraino eramanez, bertan ustez parte hartu zuten gazteak epaitu dituzte Audentzia Nazionallean.

Aipatzekoa ere bada, ETA-k bere amaiera iragarri duela; bere ibilbidearen azken muturrera iritsiz, armagabetu, barkamena eskatu eta desegin egingo da datozen egunotan. Badira zenbait muturra okerturik mintzo direnak, ez dela nahiko esanez. Eta ez da inoiz nahikoa izango, jakina delako, muturra beti dela zerbaiten hasiera edo bukaera, eta hauek badakite mutur honetaz beste ez dagoela ezer.


Soka batek bi mutur, ze urrun eta ze gertu, ze berdin eta ze desberdin. Norberak jakingo du muturra non sartu!



TXINTXARRI

Azkorte bidea erabilgarri berriro

Oztaran erreka eta Azkorte bideko isurbidea kanalizatzeko lanak egin ditu Lasarte-Oriako Udalak. Zehazki, Plazaola eta Azkorte bideek bat egiten duten puntuan egon da itxita. Orain, berriz, lanak amaituta zabalik da berriro ere bidea, eta oinezkoak ere Urrietara iritsi ahal izango dira bertatik.



NOAOA
BIDAIAK

CADIZ EZAGUTUZ
MAIATZAN 8 EGUN ETA URRIAN 10 EGUN

WWW.NOAOA.EUS

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Eguraldi ona giltzarri izango da erromeriarentzat. laz giro eguzkitsua lagundu zuen. TXINTXARRI

Azkorteko erromeria, maitzaren 6an ospakizun

Urtero moduan, Santa Krutz ospatuko dute lasarteoriatarrek Azkorteko ermitan. Musika, jatekoa, herri kirolak eta giro ona izango da Buruntzako magalean. Antolatzaileek autoz ez igotzea gomendatu dute; autobusak aterako dira herritik

Txintxarri

Ari da gerturatzen Santa Krutz eguna, eta hasiak dira prestatzen Azkorten erromeria egiteko. Urtero moduan, lasarteoriatarrek eguneko txangoa egingo dute ermitara.

Santa Krutz eguna maiatzaren 3an izango da, baina herritarrek igandean, hilaren 6an, egingo dute igoera. Eguraldiak laguntzea besterik ez da falta.

Ttakun Kultur Elkarateak, Lasarte-Oriako Udalaren eta herriko hainbat talderen laguntzarekin antolatu du erromeria. Urtero moduan, jai giroak ez du hutsik egingo. Herri kirolak zuzenean ikusteko, eta Ttirriki-Ttarraka eskolako laguneren doinuak entzuteko aukera izango da.

Festa 11:00ak aldera hasiko da. Lehenago, ordea, Ama Birjinaren ohorezko meza emango dute ermitan. Urnietako apaiz Xabier Murua izango da errezoa gidatzeko arduraduna.

Bukatutakoan, Ttirriki-Ttarraka taldeko kideek girotuko dute erromeria. Izango da, beraz, gerria astintzeko aukera. Hamaiketako egin aurretik eta ondoren, trikiti eta pandero soinuek alaituko dute goiza, erromeria batean beste modu batera ezin izan zitekeenez.

Herri kirolak

Halere, trikitalariek eta pandero jotzaileek izango dute atsedenditxo bat, herri kirol emanaldiak irau bitartean. Harrijasotzaileak eta aizkolariak izango dira ikusgai, ermita aurreko espazioan. Telleria anaiak harriarekin arituko dira, eta enborrak

TTIRRIKI-TTARRAKA ESKOLAKO TRIKITILARI ETA PANDERO JOLEEK GIROTUKO DUTE GOIZA

mozten, berri, Mugertza anaiak.

Edatekoa eta jatekoa ez da faltako Azkorten. Dantzan galdutako indarrak berreskuratzeko, odolkia, txorizoa, salda beroa eta edariak izango dira salgai inguruan jarriko duten tabernan.

Autobusa

Azkortera gerturatzeko bi modu egongo dira. Oinez ibilalditxo eginez, edo autobusean. Antolatzaileek oroitarazi dute autoak debekatuta izango dutela bide horretatik zirkulatzea, eta garraio publikoa erabiltzea gomendatu dute.

Autobus zerbitzua 09:00etan hasiko da, Biyak Bat erretiratuen egoitza aurreko geltokian. Jaitsiera ere autobusez egin ahalko da. Erromeria amaitu artean egongo dira autobusak erabilgarri.



Oihana estetika zentroa irratia frekuentzia bidezko tratamenduaz aritu da. TXINTXARRI

Osasuna ardatz hartuta, herritarrentzat jardunaldiak

Bigarren Osasun Jardunaldiak erakusleho baliagarri izan dira herritarrentzat; hainbat jakintza eskuratu dituzte

Txintxarri

Osasun Jardunaldiak antolatu ditu Aterpea merkatarien elkarteak bigarren urtez. Eskaintza zabala izan dute lasarteoriatarrek osasunaren inguruko jakintzak eskuratzeko.

Astelehenean hasita, zorriei aurre hartzeko aholkuak, hortzetako protesi kengarriak nola zaindu, eta buruko larruazalerako olio esentzien bidezko terapien inguruko ezagutzak bildu dituzte herritarrek, besteak beste.

Asteartean, berriz, Oihana estetika aretoak Medesec eta Dermapunt metodoen inguruko hitzaldiarekin ireki zuen jardunaldia. Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan eskaini du jardunaldia estetika zentroko

arduradunak, eta beste zenbait azalpenen artean, gorputz zein aurpegiko zimurrak nola lantzen dituen azaldu die bertaratutako bezeroei.

Amaia Olondris podologaren txanda izan da gero, eta astearteko azken osasun jardunaldia Noelia Calero osteopatia zentroak eskaini du.

Gaur Salto Gelan

Gaur izango da aurtengo Osasun Jardunaldien barruan antolatutako azken saioa. Salto Gela Psikomotritizitatean, 0 eta 2 urte arteko seme-alabak dituzten familientzat topaketa bat egingo dute. Jarduera horretan seme-alabak jaio ostean zein aukera dituzten ezagutuko dute. Saio guztiak doakoak izan dira.

Parte hartzeko jardunaldia antolatu du Hitzartuk

Ikuspegi aniztasuna kontuan hartuz, hondakinen kudeaketarako adostasuna bilatu nahi du taldeak

Txintxarri

Herritarrek parte hartzeko jardunaldia antolatu du Hitzartuk datoren ostiralerako. Egun osorako ekitaldia da, baina nahi den denboran egon ahalko du bakoitzak. Bazkaria ere prestatuko dute, hiru eurotara, baina horretarako beharrezkoa da komunikazioa@gurasos.org postan izena ematea.

10:15ean harrera batekin hasiko da ekimena. Horren ostean, 10:30ean, irekiera eta agenda osatuko dira; eta 11:45etik 14:00tara adin guztietarako gunere irekiko solasaldiak egingo dira.

Bazkaldu ostean, 15:30etik 16:30era berriz ere solasaldiak zabalduko dira, eta 17:00etan itxiko da jardunaldia, jaialdi batekin.



GREMIOEN GIDA 2018

Arreta profesionalena, zugandik gertu



Igeltseritza



Barne-Diseinua



Iturgintza

ANTONIO ARREGUI, S.L.  **eraikuntza materialak**
GAMMA

- Eraikuntza materialak orokorrean
- Zeramika
- Sanitarioak
- Komuneko konplementuak

www.gamma.es

BILTEGI OROKORRA **ERAKUSKETA**
Oria Etorbidea, 6 Goikale, 2
20160 Lasarte-Oria 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 64 73 Tel.: 943 36 59 47
aarreguisl@ya.com Faxa: 943 36 59 47

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria
Tel: 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK

ILLARRETA
ITURGIINTZA

- ERAKUSKETA ETA SALMENTA
- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria
943 36 31 47 / 943 37 36 17 52
Tailerra: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com



Elektrizitatea



Kristaldegia eta Leihoak

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

DEL ORIA
KRISTALDEGIA



Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522
20160 LASARTE-ORIA

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA

ISU
26. urteurrena

Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA



- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

Hurrengo GREMIOEN GIDA maiatzaren 25ean. Bertan parte hartzeko:

943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 - publizitatea@ttakun.eus

Euskara, Lanbide Heziketatik

ESKUALDEKO IKASTETXEETARA JO DUGU, EUSKARAZKO ESKAINTZAREN BERRI JASOTZEKO

2018-19 ikasturterako aurrematrikulazio epea zabaltzeko hilabete inguru falta den honetan, egunotan hedabideetan bolo-bolo zabaldu da albistea: inguruko enpresek lanbide heziketako ikasleak behar dituzte lanerako. Lanbide Heziketan Buruntzaldean dagoen euskarazko eskaintzaren gaineko publiek reportaje hau osatzeko lanketa hasia genuenean. "Egia da. Behar handia dago", adierazi digute Usurbilgo Lanbide Eskolatik.

Enpresen behar honen aurrean, euskaraz paper garrantzitsua jokatzen du. Lantegi askok, euskaraz ikasi duten ikasleak nahi eta behar dituzte. "Enpresa askok ikasle elebidunak eskatzen dizkigute. Kontuan izan, inguruotako enpresen bezero asko euskaldunak dira", Usurbilgo Lanbide Eskolatik gaineratu digutenez. Nazioartekotze prozesu batean diren lantegiok, "hizkuntzak menderatzen dituzten langileak nahi dituzte. Zenbat eta hizkuntza gehiago menderatu hobeto". Eta tartean noski, "ikasleak euskara mendera dezala, enpresa askotako eskaera izaten da". Eskaera badagoela berresten digute Hernaniko ikastetxean eta Andoaingo Leizaran Institutuan ere.

Lan eremuaren arabera ordea, panorama aldatzen dela diote. Leizaranen gizarteratzearen inguruko goi mailako heziketa zikloa eskaintzen dute D ereduan. Bada euskarazko langileen eskaria "hezkuntza-laguntzako espezialista izateko, menpekotasunarekin lotutako lanpostu batzuetan ere bai, baina harrera-egoitzetako hezitzaileen laguntzaile izateko lanpostuetan ez. Eta praktikei dagokienez, lan-arloan gertatzen dena islatzen da".

Baliabideak euskalduntzen

Egungo lan munduko erronka eta beharrei erantzuteko euskarazko eskaintzaren aldeko apustua egiten da Buruntzaldeko ikastetxeetan. "Lanbide Heziketa beti saiatzen da enpresari erantzuna ematen", Usurbilgo Lanbide Eskolatik adierazi dutenez. Enpresaren beharrak etenik gabe aldatzen doazenez, "horrek ere eskatzen du gu aldaketa horietan murgiltzea", diote Usurbilgo Lanbide Eskolatik.

Horrek noski, lanketa handia eskatzen du, baliabideen ikuspuntutik. Azpimarratzekoa da zentzu honetan, Laneki proiektuak Lanbide Heziketan ikasmateriale didaktikoak euskaratzen egiten



Maiatza amaiera aldera irekiko dute matrikulazio epea Lanbide Heziketan. USURBILGO LANBIDE ESKOLA.

ETENGABE ERALDATZEN

"LANBIDE HEZIKETA BETI SAIATZEN DA ENPRESARI ERANTZUNA EMATEN", USURBILGO LANBIDE ESKOLATIK ADIERAZI DIGUTENEZ. ENPRESAREN BEHARRAK ETENIK GABE ALDATZEN DOAZENEZ, "HORREK ERE ESKATZEN DU GU ALDAKETA HORIETAN MURGILTZEA"

duen ekarpena. Eta ondorioz, hezkuntza eskaintza hau euskalduntzen dihardu. "Beti saiatzen gara material berria euskaratzen. Lan handia da", adierazi digute Usurbilgo Lanbide Eskolatik.

Azpimarratzekoa esaterako, Leizaran Institutuan izan duen eragina. "Gure Gizarteratzeko departamentua aitzindaria izan zen gure zikloko euskarazko materiala Laneki/Jakinbai web orrian argitaratzen. Hainbat lan, itzulpen eta irakasleen IRALE euskalduntze programaren bidezko R-400 ikastaroaren bidez ere gure ekarpena egin dugu", adierazi digute Leizaranetik. Gizarterate zikloa erdaraz ematen hasi ziren 2001-02 ikasturtean, "handik urte gutxi batzuetara, Deredua ezarri genuen".

Aurretik eginiko ibilbidearen eragina

Eskaintza eta baliabideak badaude euskaraz, euskaraz ikasteko eskaera ere badago eta. "Belaunaldi berria geroz eta euskaldunagoa da" eta horrek isla argia du D eredua eskaintzen duten ikastetxeetan. Usurbilgo Lanbide Eskolan esaterako, "geroz eta ikasle gehiagok eskatzen dute euskaraz ikastea", bereziki noski, Lanbide Heziketara heldu arteko ikasketen ibilbide osoa euskaraz jorratu dutenek.

Mailaren arabera ordea desberdintasunak nabari dituzte, esaterako, Hernaniko Lanbide Heziketan. Goi mailako zikloetan bai, eskari handia dute. Aldiz, Oinarrizko Lanbide Heziketan, gerora erdi mailara igarotzen diren euskaraz ez dakiten ikasle bat baino gehiago dute, "ez dago laguntzarik

ikasleok euskaraz ikasi ahal izateko" eta horrek "erdi mailan eragiten du". Talde mistoa dute mekanizazioko ikaskeketa. Alde horretatik garrantzizkoa deritzote Hernaniko Lanbide Heziketako ikastetxetik, erdi eta goi mailako zikloetara heldu aurretik, "ikasleek egiten duten bidea euskalduntzea, Lanbide Heziketara heltzerako euskararen erabilpen handiagoa egon dadin".

B eredua

Dereduaz gain, bada euskara neurri batean txertatua duen B eredua ere Buruntzaldeko ikastetxeetan. Kasutan, "moduluen %25a euskaraz bermatua egon behar du", Urnietako Salesiarren ikastetxetik zehaztu digutenez. Bada ezberdintasun nabarmen bat, ikastetxe publiko eta kontzertatuaren artean. "Kontzertatuak oso mugatuak geratzen gara, euskara ehunean ehunean bermatzeko". Andoaingo La Salle-Berrozpetik gaineratu digutenez, "publikoek euskarazko taldeak sortzeko desdobleak dituzte. Ikastetxe kontzertatuetan ez dugu halako baliabiderik".

Eta ondorio argia du horrek. La Salle-Berrozpen aurreko etapetan

D eredua Buruntzaldean

ANDOAIN

Leizaran Institutua

• *Goi maila: gizarteratzea.*
Informazio gehiago:
leizaran.hezkuntza.net
943 300 078
zuzendaritza@leizaran.net

La Salle-Berrozpe

• *Goi maila: fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa.*
Informazio gehiago:
lasalleberrozpe.eus
943 590 557
lsbandoain@lasalleberrozpe.com

HERNANI

• *Erdi maila: mantentze-lan elektromekanikoa.*
• *Goi maila: sistema elektroteknikoak eta automatizatuak; fabrikazio mekanikoko diseinua; animazio soziokulturala eta turistikoa.*
Informazio gehiago:
hernanilanh.hezkuntza.net
943 551 958
idazkaritza@hernanilanh.eus

URNIETA

Salesiarrak

Informazio gehiago:
urnietakosalesiarrak.com
943 551 789
idazkaritza@salesianosurnieta.com

USURBIL

• *Erdi maila: administrazio kudeaketa, instalazio elektriko eta automatikoak; mekanizazioa; hozteko eta girotzeko instalazioak; beroa sortzeko instalazioak.*
• *Goi maila: administrazioa eta finantzak; automatizazioa eta robotika industrialia; energia eraginkortasuna eta eguzkia-energia termikoa; fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa; instalazio termiko eta fluidoan mantentzen diren.*
Informazio gehiago:
lhusurbil.eus
943 364 600
eskola@lhusurbil.eus

Informazio gehiago:
ikaslan.net
hetel.org
buruntzaldea.eus

lan munduratzeko zubia

D ereuan ikasi duten ikasleak dituzte Lanbide Heziketan. Baina hauez gain, badira ikastetxetik kanpotik bertara ikastera datozenak ere, oso profil ezberdinekoak, “batzuk euskara maila ona dute, beste batzuk aldiz, ez”. Testuinguru honetan, “taldeak desdoblazteko aukerarik ematen ez digutenez, gure erronka, perfil ezberdin horiek talde berdinetan txertatzea da, horretara behartuak gaude”.

Aurrera begira, euskalduntze bidean urratsak eman nahi dituzte. “Gure erronka pixkanaka Lanbide Heziketa euskalduntzean oinarritzen da, eskualdeko errealitatea errespetatuz”. B ereua euskalduntzen ahalegintzen dabiltzala gaineratu digute, “plangintza egina dugu eta garatzen ari gara”.

Buruntzaldeko Lanbide Heziketako ikastetxeek erronka gehiago ere badituzte. Andoaingo Leitzaranean, “erabiltzen dugun material gehiago euskaratzea da

gure helburuetako bat, eta metodologia berri aktibokolaboratiboetan sartzen ari garenez, egiten ditugun erronkak euskaraz egitea da gure helburua”.

Etengabe berritu, eguneratzea aipatzen dute Usurbilgo Lanbide Eskolatik, helburu argi batekin; Buruntzaldean euskaraz ikasi nahi duten guztiei erantzun ahal izatea.

Euskalduntzen segitzeko lanketan Erreportajearen zehar argi geratu den moduan, bada euskarazko eskaintza Lanbide Heziketan Buruntzaldean. Euskara ikastea ezinbestekoa da, lan merkatuan ate gehiago zabaltzeko. Baina oraindik bada zer eginga Lanbide Heziketa guztiz euskalduna izateko bide horretan. Eta horretan dihardute bai ikastetxeek, baita Buruntzaldeko tokiko erakundeek. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako euskara batzordeek urteak daramatzate, Lanbide



Lanbide Heziketako ikasmateriala euskalduntzen dihardu Laneki proiektuak. Bai Euskarari saria jaso zuen 2016an, egiten duten lanketaren errekonozimendu gisa. BAI EUSKARARI

Heziketan ere euskara bermatua egon dadin lanean. Tartean, ikasmateriala euskaratzen duen Laneki egitasmoa diruz laguntzen. Aurten, 8.000 euro bideratu dituzte **proiektu honetara**. Aurrematrikulazio kanpaina

gerturazten ari den honetan, urteroko moduan, herritarrek ikasketok euskaraz egitera animatzen dituzte.

D ereuan ikasteak, hainbat abantaila eskaintzen baititu. Euskaraz ikasten segitzeko aukera izatearekin batera, bi hizkuntzetan

lan egiteko prestakuntza jaso daiteke Buruntzaldean. Eta ikasketak euskaraz eginez gero, erdi mailako zikloetan B-1 eta goi mailako zikloetan B-2 euskara ziurtagiriak eskuratu daitezke azterketarik egin gabe.



2018 / 2019

11 aukera,
11 Lan

LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ
AUKERATU Lanbide Heziketa EUSKARAZ

BILATU gustukoa duzun zikloa eta HAUTATU EUSKARAZKO EREDUA!
Arlo guztietan izango dituzu aukerak:

- ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA
- ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA
- GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK
- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- ENERGIA ETA URA
- INSTALAZIO ETA MANTENTZEA
- OSASUNGINTZA
- NEKAZARITZA
-

Buruntzaldean:



Informazio gehiago:

www.ikaslan.net (ikastetxe publikoak)
www.hetel.eus (ikastetxe pribatuak)

Berrogeita hamar urteak dantzan

Erketz EDTk 50 urtemuga ospatzen jarraitzen du: erromeria erraldoia antolatu du Okendo plazan. 'Sokak ez du etenik' liburua eta dantza taldeko musikariek sortutako hainbat abestirekin egindako diskoa ere aurkeztu ditu jendaurrean

Iñigo Gonzalez

Herritarrek ederki erantzun diote Erketz EDTk egindako deia, eta erromeria erraldoia are erraldoiago egin dute, bazkalordura arte. 50 urte betetzen ditu dantza taldeak aurten, eta ederki ari da ospatzen. Azken bost hamarkadetako istorioak, kontuak eta bitxikeriak *Sokak ez du etenik* liburuan jasotzen dituzte. Gaurko ekitaldiarekin, hurrengo liburuko lehenengo erroak idatzi ditu Erketzek.

Liburu hori nork idatziko duen eta noiz argitaratuko den ez dakigu. Badakigu, ordea, erromeria hasi baino lehen aurkeztu dutena (*Sokak ez du etenik*) Mainer Galardi kazetariak idatzi duela. Prentsaurrekoan aipatu duenez, hamahiru-hamalau bat elkarriketa egin ditu, urteotan guztietan dantza taldean parte hartu duten hainbat pertsonarekin. Solasaldi horietatik hainbat ondorio atera ditu: "Dantza talde bat baino askoz gehiago da Erketz; lan handia egin du dantza, musika eta euskal kulturako

hainbat elementu berreskuratzen. Pertsona gisa hazteko tokia da". Euskara eta gaztelania uztartu ditu liburuan: jaso ditu taldearen ibilbidea, bilakaera eta anekdota bitxiak, besteak beste. "Erketzen bilakaera islatzen da liburuan, baina baita Lasarte-Oriaren azken bost hamarkadetako testuinguru soziopolitikoak. Garai horri aurre egion zion Erketzek, euskal kultura ausardiaz berreskuratuz. Azken zatian, gaur egungo eta etorkizuneko erronkei buruz hitz egiten da". Hitzaurrea Juan Antonio Urbeltz etnografo eta euskaltzaleak idatzi du. "Liburua idatzi bitartean, emaztea galdu zuen, baina, halere, enkargua bete zuen. Horrek balioan jartzen du zer den Erketz EDT. Eskerrak eman nahi dizkiot berari, eta baita taldeko kide eta kide ohie ere, elkarriketetan parte hartu duten pertsona guztiak ahaztu gabe".

Erketz EDTren sormen ahalmenaren sokak ere ez du etenik: liburuak bakarrik ez, CDA

ere plazaratu dute gaur. Taldeko musikariek egin dute, urteotan guztietan sortutako abestiekin. Jaso dituzte San Juan bezperako soinuak, Gipuzkoako soinu zaharrak, Oriako sorgin dantza, Matelota dantza, Lekorneko dantzak eta baita 50. urteurrenerako prestatutako flashmobaren doinuak ere. Dani Itxusta musikariak eman ditu azalpenak. "Bost hamarkada hauetan hogeita hamar bat musikari aritu dira Erketzen, gutxienez".

Ekainean, emanaldi berezia

Aurtengoa urte berezia da Erketzentzat. 50 kandela ez dira urterotz itzaltzen, eta, behar bezala ospatzeko, ekitaldi ugari prestatu ditu 2019a iritsi bitarte. Ekainaren 16an, larunbatarekin, San Pedro jaien aurreko emanaldi berezia eskainiko dute, Okendon bertan. Aurtengo ikuskizuna "oso berezia" eta "ikusgarria" dela iragarri dute taldeko kideek. Herriko hainbat elkarterek ere hartuko dute parte.



Lasarteoriatar ugari parte hartu dute igandeko erromerian. TXINTXARRI



Dantzarako osagarriek ere beren lekua izan dute ekitaldian. TXINTXARRI



Sokak ez du etenik izenburua eman diote Erketz EDTren liburuari. TXINTXARRI



Adin guztietako dantzariak bete dute Okendo plaza. TXINTXARRI



Erromeria erraldoiarekin dantzan jarri dituzte Okendora bertaratutako herritar guztiak. TXINTXARRI



Erketz EDTk 50 urteetako bizipenak liburu batean bildu ditu. TXINTXARRI



Askotariko doinu ezagunak dantzatzuz igaro dute igandea Erketz EDTko kideek. TXINTXARRI



Euskal doinu ugari dantzatu dituzte plazan, igandean. TXINTXARRI



MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Ordu-tegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

Merezi duelako,
oparitu kapritxo bat
amatxori!

Amaren egunerako zatorz Maite estetika aretoa: opari txartela prestatuko dizugu aukeratzen duzun zerbitzuarekin edo zuk nahi duzun kopuruko txartela egingo dugu berak nahi duen erara erabili dezan!

- Manikura edota pedikura
- Makillajea
- Aurpegi edota gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mota ezberdinetako depilazioak
- Betileen tindatzea eta permanentea...





Indar betean ekin diote lasterketari txirrundulariek. TXINTXARRI



Satisfazio keinu ugari ikusi dira helmugan. TXINTXARRI



BTT Lasarte-Oria, oraineko eta etorkizuneko kirol proba. TXINTXARRI



Aurreko edizioetan baino lokatz gutxiago aurkitu dute parte hartzaileek. TXINTXARRI

Pedalkadekin gozatzan

la bosthun txirrundularik primeran pasa dute Andatza mendian barrena, BTT Lasarte-Oria proban parte hartu bitartean. Goizean goiz irten dira Okendotik, eta bertan helmugaratu, hainbat ikusleren txalo artean. Eguraldiak lagundu du

Iñigo Gonzalez

Nekez eska zezaketen antolatzaileek baldintza hoberik: eguraldi ona, freskoa (goizeko bederatzi terdietan behintzat bai; eguerdi aldera gogotik jo du eguzkiak), ia bosthun txirrundulari Andatza mendian murgiltzeko prest (465, zehazki)... Kirolaz gozatzeko osagai guztiak eduki ditu BTT Lasarte-Oria probak. Parte-hartzaileek pedalkada bakoitzaz gozatu dute, Okendo plaza atzealdeko helmuga zeharkatu arte. Hainbat ikuslek txalo artean hartu dituzte txirrundulariak.

Aurten aurrenez, FlyGroup taldeak lagundu du ekitaldia antolatzen, baina probaren izpiritua hasierako berbera izaten segitzen du. Emaitzak, denborak, postuak eta markak ez dira garrantzitsuak. Inportanteena disfrutatzea da, bizikleta hartu eta kirolaz

gozatzea, mendian barrena zein errepidean. Nekatuta iritsi dira txirrundulariak, baina irribarretsu era berean, satisfazio aurpegiekin. Salbuespenen bat edo beste egon da, dena den; parte hartzaile batek oinez zeharkatu behar izan du helmuga, katea atera zaiolako proba bukatu aurretik. Gizon eta emakume helduek eman dute izena gehienbat, baina BTT probak etorkizuna bermatuta duela esan daiteke, gaztetxo bat baino gehiago animatu delako, gurasoekin batera, bizikleta hartu eta lasterketan parte

hartzera. Bi ibilbide prestatu dituzte, ohi bezala: luzea bata (38 kilometro, eta 1.100 metroko desnibel positiboarekin), eta motzagoa bestea (28 kilometro, eta 800 metro desnibel inguru). Antolatzaileen hitzetan, "errazagoa" izan da aurtengo travesia: "Iaz agian pasa egin ginen, zati batzuek zailtasun handia zuten".

Iaz baino lokatz gutxiagorekin bukatu dute proba txirrundulariek, baina, hala ere, mangera hartu eta errepaso ederra eman dio bizikletari batek baino gehiagok. Hori baino lehen, Antonio Mercero guneko arkupeetan indarrak berritu dituzte: txistorra ogitartekoak, fruta, ura, garagardoa...esfortzu ederra egin eta gero gustura jan eta edan dute txirrundulariek. Euren bizikleten gurpilak bezain biribila izan da igande goiza.

**EMAITZAK, POSTUAK
ETA MARKAK EZ DIRA
GARRANTZITSUAK.
INPORTANTEENA
DISFRUTATZEA DA**



Herritar ugari bildu zen Askatasun parke eta Mercero plaza inguruetan parte hartzaileei animoak emateko. TXINTXARRI



Andatzako bideetan barrena ibili ziren parte hartzaileak. MAIALEN ANDRES / OLADYBLOG

Beltzak taldeko 18 urtez azpikoak, Euskal Ligaren bila

Durango-Elorrioren aurka jokatuko dute finala bihar, Zarauzko Asti zelaian. Partida gogorra aurreikusi dute

Txintxarri

Babyauto Zarautz Beltzak taldeko harrobia indarrez dator. 18 urtez azpiko gaztetxoek beste urte batez Euskal Ligako finala jokatuko dute Durango-Elorrio Nissan Gaurisa taldearen aurka, bihar, 11:00etan.

"Durangok Ordiziaren aurka erakutsi zuen talde trinkoa dela. Partida ederra egin zuen finalerdian", aipatu dute Beltzakeko arduradunek. Beltzek, beraz, ez dute lan erraza izango Euskal Ligako garaikurra eskuratzeko.



18 urtez azpiko taldea. ZARAUZ/BELTZAK

Halere, etxean jokutzen dute, Asti zelaian; Zarautz zein Lasarte-Oriako zaletuak izango dituzte bertan taldeari animoak emateko.



POZO

Txirrindulariak podiumetan

Buruntzazpiko gaztetxoak Segurako eta Aizarnazabalgo probetako podiumeko lehenengo koskara igo dira. Kadete mailako gaztetxoak ederki ibili dira Seguran. Asier Pozo lehen postuan iritsi da helmugara; Jaime Romero laugarren izan da eta Beñat Carbayeda, aldiz, bederatzigarren. Postu hauei esker, taldekako garaikurra lortu du taldeak. Infantil mailan, berriz, Daniel Fursenko garaile izan zen Aizarnazabalen.

PREFOSTA
Herri Urrats 2018
Maiatzaren 13an, SENPEREN

IRTEERA: 09:15etan Kale nagusian (Lasarte-Oria) ITZULIA: 19:00etan

Bazkideak: 10€ Gainerakoak: 12€

ZATOZ GUREKIN
AUTOBUSEZ!

EMAN IZENA MAIATZAREN 10A BAINO LEHEN
Geltoki 4, behe. Lasarte/ 943 37 14 48/ ttankun@ttankun.eus

Antolatzaileak:



Kirolaz gozatzeko gune berria, Sasoetan

Ezin daiteke kalkulatu Jose Martijak utzi zuen kirol ondarearen balioa. Hainbat urtez entrenatzaile lanak egin eta futboleko jokatzeko irakatsi zien herriko hainbat haurri. Garai horietan ume zirenen ekimenez, euren prestatzailearen izena jarri diote Uzturre plazako kirol gune berriari

Iñigo Gonzalez

Urteak eta urteak eman zituen Jose Martija zenak futbol entrenatzaile lanetan. Sasoeta-Saustatxo taldean makina bat lasarteoriatarrek jokatu dute azken hamarkadetan. Jose eta Iñaki Martija anaien eskutik, kirolerako eta bizitarako ikasgai oso baliotsuak ikasi dituzte. Orain, haur horiek heldu bihurtu dira, baina oso presente dituzte maisuaren irakasgaiak. Belaunaldi gazteei eta etorkizunean etorriko direnei balio horiek transmititze aldera, otu zitzaizen Uzturre plazako kirol guneari Jose Martijaren izena jartzea. Familiak esku zabalik hartu du proposamena, eta, elkarlanean, inaugurazio hunkigarria egin zuten apirilaren 20an, ostiralean.

Eguraldia lagun, hainbat neska-mutil sartu dira kantxara, futboleko jokatzera giro ederrean. Jose Martija presente egon ez arren, hark hainbat urtetan nekatu gabe egindako lana islatu dute, hainbat urte geroago: gazteei



Baloiak ez dio mugitzeari utzi arratsalde osoan. TXINTXARRI

irakastea kirolaz gozatzea dela garrantzitsua. Hori egin dute umeez, ia iluntzera arte. Partidak jokatu eta gero, bapo askaldu dute protagonistek. Txapelketa jokatzeko ari zirela, atsedenditxo bat hartu eta ekitaldiko une hunkigarriena iritsi da: sartu da kantxan Joseren familia, eta alargun Nieves Lopez de Luzuriagak ohorezko satea egin du, ikusleen txalo artean. Ondoren,

familia argazkia atera dute, hunkituta, eta pozik. Eibar eta Realaren eskolako umeen arteko norgehiagokaz gozatu dute herritarrek, jarraian.

Baloiak ez dio mugitzeari utzi arratsalde osoan. Nahastu dira irribarreak, kirola, izerdia. Eta emozio keinuak. Eta malkoak. Bizirik segitzen dute Jose Martijaren irakasgaiak. Inoiz baino gehiago.

Gomez Margallo, irabazle Egiako Sudur krosean

Bihar, apirilaren 28an, hainbat lasarteoriatar izango dira Nafarroa Xtrem mendi lasterketako irteeran, Zubirin

Txintxarri

151 korrikalarik igaro dute Egiako Kristina Enea parkeko Sudur kroseko helmuga. Lehena Raul Gomez Margallo herritarra izan da.

Lasarteoriatarrek 20 minutu eta 54 segundoko behar izan dute ibilbideko 6 kilometroko betetzeko. Bigarren Aritz Garin, eta hirugarren Jon Otermin izan dira.

Mendi lasterketetan, berriz, Iraitz Iparragirrek eta Lasarte-Oria Traileko Iñaki Letamendiak Aloñako igoeran parte hartu dute, Oñatin. 22,5 kilometrotako

igoera honek 1.868ko desnibel positiboa du. Iparragirrek 2:37:39 denbora eginez igaro du helmuga, eta Letamendiak, aldiz, bere aurreko marka 13 minututan ondu du (3:12:56).

Bihar, apirilaren 28an, berriz, proba gogorra gainditu nahi dute sei herritarrek: Nafarroa Xtrem. Zubiriko irteera puntuan Lasarte-Oria Traileko Anabel Eleno eta Javi Olazagutia, Los Arcos anaiak, Trinko taldeko Iurgi eta Hernaniko Axerriak Mendi taldean dabiren Beñat, eta Jesus Osua eta Jon Lasarte izango dira.

De la Cruzen brontzea

LOKEko judoek ez dute atsedetik. Aste honetan Ekhi de la Cruz infantilak Euskadiko eskolarteko txapelketan brontzezko domina eskuratu du, Arrasaten. Bestalde, Fermin Baldak zazpigarren postuan amaitu du Asturiaren jokaturako Unibertsitateen arteko Espainiako txapelketan.



GORKA ARISTEGI

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONALEN IGOERA FASEA
Eibar SAD - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Unbe, Eibarren.
ERREGIONAL PREFERENTE A
Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro Larunbata. 17:30. Michelinen.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Lazkao - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Arizti Handi, Lazkao.
JUBENIL 1. MAILA, IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Hondarribia Larunbata. 15:45. Michelinen.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Hondarribia Igandea. 11:15. Michelinen.
KADETE 1. MAILA, IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Beti Ona Larunbata. 09:45. Michelinen.
INF. TXIKI ERREND., TXAPELDUN FASEA
Ostadar SKT - Tolosa Larunbata. 11:15. Michelinen.

ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Bar Buenetxea - Avenida Taberna Larunbata. 09:30. Michelingo kirolgunean.
Trumoi Taberna - Patricio Cocktail Bar Larunbata. 10:30. Michelingo kirolgunean.
Txoko Taberna Autocares LuisCar - Asador Irigoien Larunbata. 11:30. Michelingo kirolgunean.
Viña del Mar - Insausti Kattagorri Larunbata. 12:30. Michelingo kirolgunean.
3. NAZIONAL MAILA
Alipendi - Eguzki Antonio Aroztegia Larunbata. 18:00. Araian.
GIPUZKOAKO 1. MAILA
ISU Leioak Eguzki - Bilkoín Legorreta Ostirala. 20:50. Kiroldegian.
GIPUZKOAKO 2. MAILA
Teep Samaniego - Cecilia Frutadenda Eguzki Ostirala. 20:30. Uzturpe, Tolosan.
JUBENILAK
Bar Lasarte Eguzki - Zarautz Larunbata. 10:15. Antoniano, Zarautzen.

KADETEAK
Mondrate Dragoiak - Balerdi Harategia Larunbata. 10:15. Musakola, Arrasaten.
SASKIBALOA
SENIORRA 3. MAILA
Alde Zaharra - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Benta Berri, Donostian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Bera Bera Larunbata. 16:00. Kiroldegian.
JUNIOR PARTIZIPAZIOA
Ostadar SKT - Arri BKL Aldanondo Larunbata. 18:00. Kiroldegian.
KADETE ERRENDIMENDUA
Arri BKL Aseplan Pavitecnic - Ostadar SKT Igandea. 11:00. Antzitar, Beasainen.
KADETE PARTIZIPAZIOA
Ostadar SKT - Ibaeta Bera Bera Igeldo Larunbata. 09:30. Kiroldegian.
IGERIKETA
INFANTIL, JUNIOR ETA SENIOR
Udaberriko Liga Probintzialeko 2. jardunaldia lehiatuko dute. Larunbata. 16:00. Majori kiroldegia, Ordizian.

KONZENTRAZIOA
Ainhoa Martin Infantil mailako Espainiako taldearekin kontzentrazioan parte hartuko du. Ekaineko "IV International Meet Tiro a Volo Nuoto" lehiaketarako prestaketa saioak dira. Apirilaren 28tik maiatzaren 5era. Murtzian.
PILOTA
4 T'ERDIKO TXAPELKETA
Iruetagoiena - Etxezarreta Ostirala. 19:30. Michelinen.
Zabala - Solano Ostirala. 18:30. Alegian.
Iriondo - Artetxe Ostirala. 19:30. Zumaian.
TXIRRINDULARITZA
35 A. MENDIUR OMENEZKO PROBA
Kadete mailako txirrindulariek lasterketa izango dute, Urretxun. Larunbata. 16:00. Urretxun.
MENDI LASTERKETAK
NAFARROA XTREM
Nafarroa Xtrem probako irteeraren izango dira hainbat herritar. Larunbata. 09:00. Zubiri, Nafarroan.

PAGOETA MENDI LASTERKETA
Pagoeta Mendi Lasterketako proba nagusi eta proba mistoan herritarrek izango dira lasterka. Igandea. 09:30. Zarautzen.
XIV. IZARRAITZKO MENDI LASTERKETA
Lasarteoriatarrek Izarraitzko Mendi lasterketan izango dira lehian. Igandea. 09:30. Azpeitian.
IRANTZUKO I. TRAILA
Lasarteoriatarrek izango dira Irantzuko I. trailako irteeran. Igandea. 09:30. Irantzuko, Nafarroan.
LASTERKETAK
ANDOINGO SANTA KRUZ KROSS HERRIKOIA
Hainbat herritarrek Andoingo Santa Cruz Kross herrikoian parte hartuko dute. Asteartea. 10:30. Andoainan.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, FINALA
Baby Auto Beltzak - Durango Elorrio Larunbata. 11:00. Asti, Zarautzen.

ZORION AGURRAK



Iraia eta Ander

Zorionak bikote! Muxu potoloa etxeko guztien partetik!



Lur

Zorionak maitia!
Zure 14 urte polit horiek oso ongi ospatu dituzula espero dugu!!

Aitor

Egun oso ona pasa dezazula, zure aitona-amonak, Alfredo eta Pepiren partez. Zorionak txapeldun, asko maite zaitugu!!



Maialen

Zorionak "preciosa" ondo pasa zure hamahirugarren urtebetetzean; Leire, aitona-amonak eta familiaren partetik. Oso ondo pasa bihotza.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 27	GIL
Larunbata, 28	GANDARIAS-URIBE
Igandea, 29	GANDARIAS-URIBE
Astelehena, 30	ACHA-ORBEA
Astearte, 1	LASA
Asteazkena, 2	GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 3	ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu:
 Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

OHARRAK

Irakurle txokoko errifaren sariduna

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak urtero legez, errifa egin du. Zenbaki sariduna 348 da. Altxoa Amorotoko nekazal turismoan 5 pertsonentzako egonaldia irabazi du zorteko zenbakiak.

Biyak bat elkarteko gizonen ileapaindegia martxan

Biyak Bat elkarteak jakinarazten du, gizonetako ileapaindegi zerbitzua martxan dela.

Ileapaindegiaren ordutegia honakoa da: astelehenetik ostiralera, goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsalde, 16:00etatik 18:00etara.

Zubietako Udako Txokoak

Zubietako Guraso Elkarteak udarako haur txokoak antolatuko ditu Zubietan, 2 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduak.

Txokoetan parte hartzeko, uztailearen 27ra arte aurretiko izen emate epea zabalik dago. Interesatuak zubietatxoko@gmail.com helbidera idatzi edo 649659786 telefonora dei dezakete.

Aterpea 25. urteurreneko afaria

Aterpea Merkatari elkarteak 25. urteurrena ospatzen ari da. Ospakizunen artean, maiatzaren 19an, afaria antolatu du Maialen Chourraut kiroldogian. Ostein, dantzaldia izango da, Ibai Berriak taldeak girotua.

Tiketak 40 euro balio ditu eta maiatzaren 12ra arte izango dira salgai elkarteko dendetan.

Galizia eta Portugalera bidaiak

Biyak Bat elkarteak bidaiak antolatu du Galizia eta Portugalera iparraldera, maiatzaren 27tik ekainaren 5ra. Elkarteko bazkideek 530 euro ordaindu behar dituzte; bazkideak ez direnek, berriz, 580 euro. Izena ematea elkarteko bulegoan egin behar da astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, apirilaren 30ean, eman ahal izango da odola Osasun

zerbitzu hori eramaten Ttakunek orain artean egin duen lan bikaina, eta horregatik atera da lizitazio publikoa haiek berak orain artean aurrera eramaten ari ziren proiektua kontuan izanda.

Baina, enpresa bat lizitaziora aurkezten denean, proposamen tekniko on bat egin ez ezik, eskaintza ekonomiko on bat ere egin behar du, zeren eta bietako puntuak batuta puntuazio handiena lortzen duena baita lizitazioko irabazlea.

Eta horixe da udako txokoen lizitazioan zoritxarrez gertatu dena: beste enpresa batek Ttakunen proposamenak baino puntu-kopuru handiagoa lortu du guztira. Enpresa horri dokumentazioa eskatu zaio, adjudikazioa burutzeari ekiteko. Gertatuko balitz eskatutakoa ez duela betetzen, hurrengo enpresari adjudikatuko litzaioke, eta kasu honetan Ttakun litzateke.

Ez teknikariek, ez udaleko gobernuak, ezin dute objektibotasunik gabe jardun prozesu osoan zehar, zeren eta, uneren baten Ttakunen alde egingo bagenu herriko entitate bat delako, berriz ere prebarikatzen ariko baikinake. Eta ez gaude marra gorri hori gurutzatzeko prest.

GUTUNAK

Udalaren argibideak udako txokoei buruz

LASARTE-ORIAKO UDALA

Udako txokoak iaz arte Udalarekin izenpetutako hitzarmen baten bitartez Ttakunek antolatu ohi zituen zerbitzu bat dira, eta familiek pagatzen zuten kuotetatik eta Udalaren diru-laguntzatik osatutako diru-sarreraren bidez finantzatzen zen oso-osorik, Ttakunek jarduera horretan euro bakar bat ere jarri behar ez zuelarik.

Horregatik, duela urte batzuetatik hona, Ttakunekin lanean aritu gara egoera anomalo hori erregulatze aldera, zeren eta zerbitzu guztiak lizitazio publiko baten bidez adjudikatu behar baitira, zerbitzua eman nahi duen edozein enpresari hartara aurkezteko aukera emanez.

Inork ez luke ulertuko baldin eta Udaletik, behatzez esleitutako diru-laguntza baten bitartez, enpresa bati adjudikatuko bagenio, esate baterako, kaleak garbitzeko zerbitzua edo etxean laguntzeko zerbitzua, legearen arabera lizitazio garden bat egin gabe. Izan ere, horrela egin ezean, prebarikazioko delitua egiten ariko ginakete.

Udaletik ez dugu zalantzan jartzen

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN EMAN

Etxebizitza alokatzen da Sasota auzoan. 2 logela ditu eta berogailua ebxe osoan. Telefonoa: 649 526 766.

LANA

ESKAINTZA

Etxeko lanak egiteko emakume bat behar dut

goizetan, Zubietan. 695 783 202.

ESKAERA

Pertsona adinduak zainduko nituzke asteburuetan, jai egunetan edo ospitaleetan gauean. 606 661 048/943 404 015.

Etxeko lanak egiteko eta adineko pertsonak

zaintzeko esperientziadun pertsona eskaintzen da. Telefonoa: 696 652 161. Piedad.

Adinekoak zaintzeko prest, interna edo externa moduan. Gaez ere bai. Esperientzia handiko pertsona, tituluduna, erreferentziak ere badituzte. 678 242 463.

SALEROSKETAK

SALMENTA

Shakirak ekainaren 28an BEC-en emango duen kontzerturako lau sarrera saltzen dituzte. 689 709 837

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Frantseseko, ingeleseko eta latineko klaseak

emango nituzke, baita eskola laguntzako ere. Ekonomikoa. 600 766 068

JAIOTAKOAK

Elisabet Leon Diaz. Apirilaren 24an.
Iker Jimenez Villaron. Apirilaren 21an.

HILDAKOAK

Nicolás Santos Patino. Apirilaren 23a.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAK: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€


Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan

Eskelak

Txintxarrin

90 euro

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odrizola, Gorka Alvarez,
Jexux Artebe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Banatazaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,
Maialen Goikoetxea.

Informatikoa

Benat Gonzalez

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA Osasun jardunaldiak 0 eta 2 urte arteko seme-alabak dituzten familientzat topaketa: Nire semea-alaba jaio da, eta orain zer saioa egingo da. Aterpea Merkatarik Elkarteak antolatzen dituen II. Osasun jardunaldietako ekintza. Salto gela prikomotrizitatea, 18:00etan

LASARTE-ORIA Dantza

Dantzaren Nazioarteko eguna ospatzeko, herriko dantza taldeek desfilea eta dantza ikuskizuna eskainiko dute. Kukuka antzerki eta dantza eskolak sustatutako ekintza da. Okendo plaza, 19:00etan

ASTIGARRAGA Kontzertua

Musika eskolako ikasleek gitarra klasikoko emanaldia eskainiko dute. Norberto Almandoz musika eskola, 19:00etan

DONOSTIA Antzerkia

Ataats Sortzaileak *Gudu* lan orijinala aurkezten dute. Dorleta Urretabizkaia eta Asier Hernandez dira aktoreak. Ernest Lluch, 20:00etan

URNIETA Kontzertua

Urnietako Lappa taldearen *Polisemian* diska berriaren aurkezpen kontzertua. Talde gonbidatua Physis vs Nomos izango da. Sarobe aretoa, 21:30ean

USURBIL Hitzaldia

Usurbilgo gazte mugimenduak Oreretan etxebizitza sozialaren proiektuari buruzko solasaldia antolatu du. Sutegi aretoa, 22:00etan

HERNANI Hernani'n Musik

Izaro Andresek *Eason* diskoa aurkeztuko du. Sarrera, 7,50 euro. Biteri kultur etxea, 22:00etan

LARUNBATA 28

DONOSTIA Erakusketa

Argazki-liburuen fenomenoaren erakusketara bisita gidatua. Bisita gidatu hau doakoa da erakusketarako sarrera eskuratuta, eta ez da aurrez izena eman behar. San Telmo museoa, 11:00etan



LASARTE-ORIA Dantzaren Nazioarteko eguna. Ekitaldiari hasiera emateko, desfilea izango da herriko erdiguneko kaleetatik barrena. Okendo plazara iritsi eta Kukuka, Erketz, Zambra eta Saharako dantzariak emanalditxoak eskainiko dute. Ostean, dantzaren eguneko manifestua irakurriko da. Azkenik dantzari eta ikusleek plaza dantzean gorputza astinduko dute. Eguraldi txarra eginez gero, ekitaldia Loidi Barren frontoian egingo da. Okendo plaza, gaur, ostirala, 19:00etan

ASTIGARRAGA Kalejira

Iruñeako alde zaharreko kiliki eta erraldioen kalejira izango da. Iruñeako dultzainak eta Astigarragako Txirriskla txistulari taldea lagun izango dituzte. Foru plaza, 12:30ean

USURBIL Kantu-jira

Usurbilgo Kantu Taldea kantu-jira egingo du herritik barrena. Herritar orok parte har dezake. Mikel Laboa plaza, 12:00etan

USURBIL Gazte mugimendua

Usurbilgo gazte mugimenduak hainbat ekintza antolatu ditu: 18:30ean, M1 gazte kontzertua. 19:00etan, Elektro Papo. 23:00etan, Kontzertu gaua: Kezka, Zapparra eta Dj Manolo 62. Askatasuna plaza, 18:30etik aurrera

HERNANI Kontzertua

Hernaniko Musika Bandak emanaldia eskainiko du. Honetan Amaia Gonzalez Caballero Dantza Eskolako kideek parte hartuko dute. Atsegindegi, 19:00etan

DONOSTIA Antzerkia

Axut!-ek *Zazpi senideko* antzezlan eskainiko du. Ander Lipusek zuzendutako lana da eta Ximun Fuchs eta Manex Fuchs dira aktoreak. Sarrera, 10 euro. Gasteszena, 20:00etan

DONOSTIA Kontzertua

The Limiñanas, The Lookers eta The Glory Howl taldeen kontzertua. Sarrera, aurretik 15 euro; egunean 18 euro.

Intxaurren Kultur etxea, 22:00etan

IGANDEA 29

DONOSTIA Kontzertua

Elkano Browning Cream taldeak *Bor Bor* azken diska aurkeztuko du. Jazza eta bluesa ditu oinarri. Sarrera, 5 euro.

Victoria Eugenia Club aretoa, 19:00etan

ASTELEHENA 30

HERNANI Kontzertua

Goiz Eguzki eta Oñatiko Pakeleku abesbatzen emanaldia. Goiz eguzki, 19:00etan

DONOSTIA Kontzertua

Ceramic Dog bandaren kontzertua. Marc Ribot gitarra jolearen azken proiektuetako bat da taldea. Rock underground, esperimenduzko elektronikoa eta inprobisazioa du oinarri. Sarrera, 22 euro. Victoria Eugenia Club aretoa, 20:00etan

OSTEGUNA 3

HERNANI Hitzaldia

Joseba Intxaustik *Armeniera eta euskara* hitzaldia eskainiko du. Biteri kultur etxea, 19:00etan

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUJONA

Boonie Bears: El gran secreto filma

Igandea: 17:00.

Gorrior rojo

Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

Vengadores:

Infinity War

Ostirala: 16:00, 17:00 (3D), 18:00, 19:05, 20:05, 20:05, 21:05, 22:10, 23:10, 00:10, 00:25 (3D). Igandea: 16:00, 17:00 (3D), 18:00, 19:05, 20:05, 21:05, 22:10. Larunbata: 15:45, 17:50, 20:35, 22:40, 00:45. Ostirala: 15:45, 17:50, 20:35, 22:40, 00:45. Igandea: 15:45, 17:50, 20:35, 22:40.

20:05, 21:05, 22:10, 23:10, 00:10, 00:25 (3D).

Igandea: 16:00, 17:00 (3D), 18:00, 19:05, 20:05, 21:05, 22:10.

Noche de juegos

Ostirala: 15:45, 17:50, 20:35, 22:40, 00:45. Larunbata: 15:45, 17:50, 20:35, 22:40, 00:45. Igandea: 15:45, 17:50, 20:35, 22:40.

Un Lugar Tranquilo

Ostirala: 16:10, 18:05, 20:00, 22:30, 00:30. Larunbata: 16:10, 18:05, 20:00,

22:30, 00:30.

Igandea:

16:10, 18:05, 20:00, 22:30.

Campeones

Ostirala: 15:50, 18:30, 20:00, 21:45, 00:20. Larunbata: 15:50, 18:30, 20:00, 21:45, 00:20. Igandea: 15:50, 18:30, 20:00, 21:45.

Proyecto Rampage

Ostirala: 16:15, 19:55, 22:10, 00:45. Larunbata: 16:15, 19:55, 22:10, 00:45. Igandea: 16:15, 19:55, 22:10.

Las leyes de la termodinámica

Ostirala: 18:30. Larunbata: 18:30. Igandea: 18:30.

Ready Player One

Ostirala: 22:00. Larunbata: 22:00. Igandea: 22:00.

El Príncipe Encantador

Ostirala: 16:00. Larunbata: 16:00. Igandea: 16:00.

Peter Rabbit

Ostirala: 15:45, 17:50. Larunbata: 15:45, 17:50. Igandea: 15:45, 17:50.



LABURPENA

Gorrior rojo

Zuzendaria: Francis Lawrence. **Gidoilaria:** Justin Haythe. **Herr:** AEB (2018). **Aktoreak:** Jennifer Lawrence, Joel Edgerton, Jeremy Irons, Charlotte Rampling, Mary-Louise Parker, Matthias Schoenaerts, Joely Richardson, Nicole O'Neill, Sergej Onopko. **Iraupena:** 139 minutu.

Espioitza eta bere azpijokoak

Gorrior rojo filma Jason Matthews idazlearen izen bereko eleberrian dago oinarritua. Francis Lawrencek (*Los juegos del hambre*, *Soy Leyenda*) zuzendutako filma da eta Jennifer Lawrence da protagonista.

Dominika Egorova Bolshoi dantza taldeko kidea da. Lesio bat dela eta, dantza utzi behar du. Errusiako agintariak bere borondatearen aurka espioizteraren beharrezkoak dute. Era honetara bakarrik mantentzeko dantzari bezala izandako pribilegioak eta gaixo dagoen ama zain dezake.

KGBko *Gorrior Rojo* programa sekretuko kide da. Bertan bere gorpua arma bezala erabiltzen

ikasten du. Gizatasuna kentzeko entrenamendu zorrotzak igarotzen ditu, baina bere identitatea mantentzen saiatzen da.

Bere lehen misioan Nate Nash (Joel Edgerton), CIAko agentearekin egiten du topo. Domenikak Errusiako kanpo inteligentzia-zerbitzuko goimailetan dagoen Marmol espioaren identitatea ezagutu behar du eta horretarako Nash liluratu behar du.

Biak sexualki erakartzen dira. Gezurak, mehatxuak... denetarik dago. Haien karrerak, bakoitzaren herrialdearen leialtasuna eta segurtasuna arriskuan jartzen dituzte.

KOMIKIA



PUBLIZITATEA

TTAKUNEK KUDEATZAILEA BEHAR DU

Elkartearen kudeaketaz, plangintzaz, antolakuntzaz eta jardun-ekonomikoaren kontrolaz arduratzeko. Baliabideak optimizatuz, plan estrategikoa garatuz...

- **Ezinbestekoa:** - Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea
- Goi-mailako ikasketak izatea (goi-mailako zikloa, diplomatura, gradua, lizentziatura)
- **Baloratuko da:** - Euskalgintza eta herrigintza arloak ezagutzea.
- Antolakuntza, komunikazioa, lantaldeen koordinaziorako eta giza harremanetarako gaitasuna.
- Taldean lan-egiteko gaitasuna.
- Egitasmo berriak sortu eta proposatzeko gaitasuna.
- Euskara C1 edo C2 izatea.
- Ekonomia ezagutzak: diru-laguntzetan eskarmentua, zuriketak, aurrekontuak...
- Ofimatika ezagutzak.



Bidali curriculuma maiatzaren 11 baino lehen: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

euskara
bada
errenta



ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

APIRILAREN 6TIK AURRERA
AUTOLIKIDAZIOA ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN AUKERA

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.eus>
Albisteak elkarbanatu eta opariak eskuratu!
Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil
UDAL EUSKARA BATZORDEAK



ORIANTE
Institutua



2018-2019
IKASTURTEA
Izen ematea
Batxilergoa

- ✓ Zientziak eta Teknologia
- ✓ Giza eta Gizarte Zientziak

ESKAERAK

On-line
2018ko maiatzaren
2tik 13ra arte

Ikastetxean
2018ko maiatzaren
2tik 14ra arte